



211. zenbakia

·URRIA 2021·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra, Patxi Irurzun eta Arantxa Puignau.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Beuntzako azoka. Egilea, Amaiur Unzueta

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urriaren 3an bidalia



ZAUNK

Oihana Arana

“
Espero baino gehiagotan
topatzen dituzu
behar baino pauso bat
gehiago gerturatu
eta zaunka betean
hasten diren zakurrak

ba omen dago inorena ez den
territorio bat
zure territorioaren
eta haienaren artean
inorena ez izateak haiena
bilakatzen duena.

Neurgaitza da zaratak
belarri barruetan
sortzen duen
oihartzunaren pisua


zama deitu beharko genioke

behin eta berriro
itzultzen delako.
Zuk ZAUNK ez
ZAUNK zenuke
ZAUNK hemen ZAUNK
egon ZAUNK
behar;

eZinA errUz
eraikitzeN daKite
eta Zuk Albotik Urruntzeko
Nahi Kontrolaezina
sentitzen duzu
mundua ez dago
denontzat eraikita,
eZ dA zU moduko
niNfa neKatuentzat.

Oihartzunaren pisua da
zuk ez duzu errurik
zeuk ez duzu errurik
zeunk ez duzu errurik
ZAUNK! errua
zakurrarena da.

Baina zakurrak ezin dira
ihes eginda desagerrarazi
depilatzeko pintza batekin
bala bat erauzi
ezin daitekeen
bezalaxe. ”



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Udazkenaren iritsiera

Urtaro aldaketan ere, zaindu ditzagun gorputza eta burua

Urtaro eta ingurumen aldaketei gure organismoak erantzutean sortzen den sindrome arin eta iragankorra da 'udazkeneko astenia'. Aldaketa horiek gure bioerritmoari eta loari eragiten diete, eta eragin negatiboak izan ditzakete gure aldarlean.

Alterazio horien eragile nagusia melatonina da, loa eta gorputzaren tenperatura erregulatzen dituen hormona.

Eguzki-argiaren denbora murriztearekin, melatonina gehiago sortzen du gorputzak, eta gehikuntza horrek 'zoriontasunaren hormona' gisa ezagutzen dugun serotoninaren jaitsiera eragiten du. Melatoninaren gehikuntzak eta serotoninaren galerak sintoma desberdinak dakartza.

Aurreko faktoreei eguneroko betebeharretarako buelta eta harreman sozialen murriztea, euria, hotza eta eguzki-argiaren gutxitzea gehitzen badizkiegu, udazkeneko astenia izan daiteke ondorioa, gure egoera afektibo eta emozionalean eragin zuzena duena. Nahasmendu afektiboak

dituzten pertsonak urtaro-aldaketa horiekiko sentikorragoak izan ohi dira, eta sintomak intentsitate handiagoarekin suma ditzakete.

Sindrome honek lehen gustuko genituen jardueretan interes falta, tristura, apatia, kontzentratzeko arazoak, suminkortasuna, umore txarra eta elikadura nahasmenduak eragin ditzake.

Bestetik, udazkenaren iritsierak gripeak eta katarroak ere ugaritzen ditu, organismoaren defentsen jaitsieragatik baino gehiago, egunean egon daitezkeen tenperatura aldaketa zakar eta arnasketa-birusen ugaritzeagatik.

Apatia eta katarroen sintomak arinak izan ohi dira normalki, baina egoera horiek bizi-kalitatea baldintzatzen dute.

Gure gorputza urtaro aldaketara arazorik gabe egokitzea da ohikoena, gure inguruan urtaro aldaketa hori oso graduala baita eta horrek aldaketak kasik ohartu ere egin gabe nork bere egitea baitakar.



**Itziar Berasain
Orzuri Beldarrain**

Udazkeneko astenia eta katarroak ekiditeko hainbat gomendio:

- Ongi lo egitea, ordutegi finkoak mantentzen saiatuz
- Ariketa fisikoa egitea, neurrian eta bereziki kanpoan, eguzki-argia aprobetxatuz
- Garaiko produktuen dieta orekatua jarraitzea (fruituak, barazkiak, zereal integralak...)
- Hidratatzea
- Kafe, tabako eta alkoholaren kontsumoa ekiditea
- Jarduera intelektual bizigarriak egitea (denbora-pasak, gurutzegramak...)
- 'Jarri eta kentzeko' arropa erabiltzea. Udazkeneko tenperaturak oso aldakorak dira, eta beraz, babesten duen arropa arina erabiltzea gomendatzen da
- Jaki beroak hartu. Zopak, saldak eta infusio beroek gorputza tonifikatu eta sudur-hobietako eta zintzurreko mukosak hezeten ditu.



▲ Urtaro aldaketen aurrean sor daiteke astenia



Errotak, Etsainen

Hiru errota bakarrik ez, bederatzi errota jarri nahi dituzte Anuen

Anotzibarko Aldaun mendian, Odietan, jarri nahi dituztenak aipatu ditugu Pulunpen azken urtean. Baina, jakina zen, Anuen ere, Etsainen, parke eolikoa eraiki nahi duela Sacyr enpresak. Anotzibarren hasieratik agertu ziren aurreproiektuaren kontra herritarrak, eta, dagoeneko, ez omen dago proiekturik bertan. Etsainen, ordea, alde agertu ziren kontzejuan bozkatu ondoren. Baina, orain, hiru errota aurreikustetik bederatzira pasatu dira behin behineko proiektuan; 200 metrotako bederatzia errota; eta, oraingoan, kontrako jarrera nabarmendu da kontzejuan. Gainera, informazio falta salatzen dute zenbait herritarrek.

Proiektuaren kontra agertu den herritar batekin bildu gara, losu Alfarorekin, bere etxean, mendiaren pare-parean. Ingurumen Hezkuntzan egiten du lan Alfarok.

Hasiera-hasieratik izan zarete batzuk proiektuaren kontra?

Bai, hasieran aurkeztu ziguten aurreproiektuarekin, duela urtebete, aurka egon baino, larritu egin ginen. Gero, aurreproiektu horretatik hona aldaketa handi bat egon da. Anue bailaran, eta batez ere Etsaingo herrian, eragin latza izanen du. Gaur egun, mahai gainean dagoen eta tramitatzen ari den proiektuaren eragina ezkorra eta oso larria izanen da. Horrek, batez ere azkeneko asteetan,

aurkako jarrera areagotu egin du herritarren artean.

Hasiera batean errota gutxiago aurreikusten zirelako?

Hain zuzen ere, Etsainen gaude elkarrizketa egiten, eta leiho handiak ditugu hemen gure aurrean. Bertatik bertara ikusten diren mendi horietan, hasieran, bizpahiru errota ikusi eta entzungo genituzke. Hori zen hasierako aurreproiektua. Tartean, hilabete batzuen buruan, ez dakigu zeinek, non eta nola, beste gauza bat negoziatu edo adostu du: bizpahiru erroetatik bederatzia errota erraldoi izatera pasa gara, mendi horien tamaina berekoak. Kasu batzuetan errota mendia baino handiagoak

“ **Energia berriztagarrien alde gaude, baina hau beste gauza bat da. Kasu honetan tamainak axola du** ”

izanen dira. Hori da uda erdian, jendea oporretan zegoen bitartean, etorri zaiguna. Informazio falta salatu nahi nuke, gainera. Izan ere, hasieran, hitz goxoekin eta diru-promesarekin etorri zen norbait, borondate onarekin ziur aski. Baina, gero, hilabeteetan, ez genuen deus argirik izan, eta bat-batean udan jaso genuen proiektu hau. Alegazioak egiteko hilabete bateko epea soilik utzi digute.

Urriaren 4a arte izan duzue helegiteak aurkezteko epea.

Bai. Tramite hori garrantzitsua da, baina borroka hau ez da urriaren 4an amaitzen. Gobernuak, ziur aski, erantzuna emanen die alegazio guzti horiei. Hurrengo pausoetan herritar guztien iritzia garrantzitsua izanen da, alde eta kontra gaudenon iritzia. Modu lasai batean eztabaidatu dezakegu, ahal den neurrian. Batzuetan berotu egiten gara,



Etsain, argazkian ikusten den malda horretan jarri nahi dituzte errota



Etsaingo Parke Eolikoa. Iturria,
Haize Berriak Facebooka



Etsainen gertatu bezala. Herri, baso eta pertsona guztiondako etorkizun hobe bat nahi dugu, bai kontra gaudenok eta baita alde daudenak ere. Horregatik, guztion ekarpena da garrantzitsua eta eraginkorra.

Iritzi ezberdinak aipatu dituzu, baina kontra zaudetenok, zergatik zaudete kontra?

Ez da gai sinplea. Gu proiektu honen aurka gaude, ez gaude energia berriztagarrien aurka. Baina makroproiektu hau beste gauza bat dela pentsatzen dugu. Kasu honetan tamainak axola du. Errota hauek 200 metrokoak dira, herrietatik oso gertu daude, inguru natural batean ezin dugu klima zaintzeko ingurumena txikitu. Klima aldaketaren arazoa duela urte asko egon da mahai gainean. Bat-batean, oso eroso egon diren batzuk esnatu egin dira eta haien diru guztiarekin, presaka eta korrika, proiektu hauekin mundua salbatzera datoz. Baina autokontsumoa, produkzio txikia, beharrezkoa dena tokian kontsumitzea, horrek ez du aurrera egin urte guzti hauetan. Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu bere papera bete dezala, multinazionalak ez daude soberan, baina erregulazio baten barruan, herritarren onurarako eta etorkizuna bermatuz. Proiektu honetan justu kontrakoa ikusten dugu: gure bizi-kalitatea zapaldu egiten da.

Instituzioak, Nafarroako Gobernua, aipatu dituzu. Zer harreman duzue haiekin?

Bilerak izan dira, eta lortu izan da udalez gain kontzejuak ere gonbidatuak izatea bilera gutxi batzuetara. Bilera horretan erabakiak edo tramiteak aurkeztu dira, maiz. Erabaki horietara iristeko pausoak atek itxita egin dira. Bestalde, kontzejuetan ere eztabaida sortzen ari da. Anuen herri batzuek kontzeju mailan esan dute aurka daudela: Etsainez gain, Aritzuk, Leazkuek eta Egozkuek adierazi dute aurkako jarrera.

Izan ere, Etsaingo terminoan kokatuko lirateke errota horiek, baina bailara osoari eraginien diote?

Alde dagoen jendeak, ze egon bada, esaten du onurak ez liratekeela Etsainendako bakarrik izanen, bailara osorako baizik, hemen ez dagoelako enpresa askorik. Baina bai, eraikiko dituzten errota erraldoi horiek guk Etsainen entzun, ikusi eta jasango ditugu, baina ziur aski Leazkuen eta Egozkuen ere

bai, eta beharbada Olagueko etxe batzuetatik eta errepidetik gatzela ikusiko ditugu. Gauean ere bai, argiak baitituzte.

Hitzaldiak egin dituzue, zer erantzun jaso duzue?

Jende asko gerturatu da, eta sentsazioa da informazio gabezi larria zegoela populazio, eta administrazioan. Udalarekin izan gara eta zinegotzi batzuek esaten zuten ez zekitela zehazki zein zen proiektuaren dimentsioa. Jendea harrituta eta larrituta sumatu dugu informazioajaso ondoren. Biztanleak gerturatzera gonbidatu nahi ditugu, galdetzera eta informazioa behar badute guri ere eskatzera. Gauza bera alde dagoen jendeari ere, edo Sacyrri, Nafarroako Gobernuari, guztiei informazioa eskatzea.

“ Hurrengo pausoetan herritar guztien iritzia garrantzitsua izanen da ”



▲ Etsainen ere hitzaldia antolatu zuen Haize Berriak

Leurtzaren begirada

Leurtzaren begirada

Leurtzako urtegiak Urrotz eta Beintza-Labaien udalerrien artean daude, Nafarroa Atlantikoko basoen erdian, eta 1920an eraiki ziren. Leurtza izeneko erreka, erdi ezkutaturik, bertan isurtzen ditu bere urak. Hala, pagadiz inguratutako arro itxiak berezitasun handia ematen dio lekuari. Bertako urek, animaliek nahiz zuhaitzek historiaren **zertzeladak** kontatzen dizkigute oraindik, baita hainbat eta hainbat istorio xeble ere.

Leurtzak bere historia eta istorio aunitzen lekukotza jaso du. Bertan, gizakia aurre-historiatik egon da, duela 5000 urte inguru. Pittorzar eta Mugakosoroko trikuharriek, Axerizulotako tumuluak eta Pallueko trikuharriek ematen dute horren **testigantza**. Tribu horiek artzaintzatik bizi ziren; ziurrenik, nomadak ziren, brontzea ezagutzen zutenak, baina haien arrastoa hilobi-monumentuetan bertzerik ez zaigu gelditu. Pentsatzekoa da, garai hartan, basoa ez zela horren zabala izanen eta larreek egungoa baino eremu zabalagoa hartuko zutela.

Erromatarren garaian, baskoien basoa izan zen, espazio basatia, eta, haien ustez, bizitzeko desegokia. Erdi Arora arte artzaintzan aritu eta ikatza **ustiatzeko** erabili zen. Basoetatik ateratako materiala kontinenteko Nafarroa,

itsasoko Nafarroa eta Bidasoko eskualdeak lotuko zituen bide-sarea eraikitzeko erabili zen: zati batzuk harriz babestu ziren (Urrotz eta Eltzaburu lotzen zuen galtzada). Horrez gain, udalerrien mugak zehazten joan ziren: Zumardenako 1781eko mugarrria da horren **lekuko**.

XIX. mendean zehar, karlistaden garaian, zenbait gertaera historiko burutu ziren Leurtzan. Garrantzitsuenen artean, Larremearreko guda aipatzen ahal da (1835ean); Espoz y Mina jeneralak zuzendutako tropa liberalen eta Zumalakarregi jeneralak zuzendutako tropa karlisten artean burutu zuten.

Belateko errepidea ireki zenean, salerosketen garraiorako gainerako ohiko mendi-bideen artean konpetentzia sortu zen. Ondorioz eta ez **desagerrarazteko**, zenbait bideren galtzadak eta zoruak hobetu ziren (Zumardenako harrizko bidea).

Gudak, liskarrak, gaueko-lanak... iragana, oraina eta etorkizuna, den-dena bertako hego haizeak kontakizun bihurtzen ditu. Leurtzako urtaroei basoak kolorez aldatu eta zuhaitzak biluzten dituzte. Urtegiak bisitariei historia eta kontakizun ederrak **xuxurlatzen** dizkie, azken finean, eremu magikoa baita.

Hiztegia

Zertzelada: Pincelada

Testigantza: Testimonio

Ustiatu: Explotar, extraer

Lekuko: Testigo

Desagerrarazi: Hacer desaparecer

Xuxurlatu: Susurrar



Leurtzako urtegia ▲



Hamairu ume aurten, Ttikiena haur eskolan



Ttikiena haur eskola ▲

Hamairu ume hasi dira ikasturte honetan Jauntsarasko Ttikiena haur eskolan. Urtarrilean, gainera, hamalau izanen dira. Hezitzaile berri bat kontratatu behar izan dute, eta bigarren unitate bat sortu.

Gurea bezalako landa eremuko zonalde baterako oso albiste ona da. Amaia Legarra zuzendariak baieztatu zigunez: »oso pozik gaude, bigarren unitatea onartu ziguten abuztuan, eta hirugarren hezitzaile bat sartu da. Hamahiru haur daude honezkero, eta urtarrilean hamalau izanen dira«.

Lau pasa zen urtean sartu ziren, eta aurten jarraitu egingen dute; bederatzi dira berriak. Zazpi Basaburukoak dira, lau Imoztik datoz, eta bi Irurtzundik. Adinari dagokionez, hiruk bi urte bete dituzte; beste hiruk, urte eta erdi; eta, zazpi orain beteko dute urtea. Azaroan jaiotakoa da txikiena, eta, urtarrilean sartuko denak orduan beteko du urtea.

Azpiegituran berrikuntzak egin dituzte Xinbili Xanbala haur eskolan

Ikasturte berria hasi da, eta Iraizozko Xinbili Xanbala haur eskolan nobedadeak ekarri ditu: zoladura erabat aldatu dute eta pergola bioklimatikoa jarri dute patioan.

Obra uztailean eta abuztuan egin dute, eta eskolaren zati bat berrituta abiatu dute ikasturtea. Alde batetik, eskola barruko zoladura guztia berritu da, aspaldikoa baitzen. Linotec soluciones Técnicas SL enpresak egin ditu lan horiek, eta 21.275 euroko aurrekontua izan dute, BEZa barne. Bestetik, kanpoko patioaren zati bat estaltzen duen pergola bioklimatikoa izanen du Xinbili-Xanbalak ikasturte honetatik aurrera. Kasu honetan, Lamitek Protección Solar SL enpresak egin du obra, eta 30.492 euroko kostua izan du BEZarekin.

Ultzamako Udalak sustatu ditu lanak eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamenduak finantzatu ditu. Bi erakundeek hitzarmen bat sinatu zuten joan zen martxoan, eta, horren arabera, Hezkuntzak 60.000 euro bideratu ditu lan horiek ordaintzeko.

Aurten, 25 ume eta bost langile izanen dira Ultzamako Xinbili Xanbala Haur Eskolan.



Xinbili Xanbalako pergola berria ▲



Zoladura berritu dute Xinbili Xanbalan ▲



Irailaren 24an hasi dute Ultzamako Parke Mikologikoko denboraldi berria

Parke Mikologikoko hamabosgarren denboraldia abiatu dute irailaren bukaeran. Uxama Elkarte Mikrokoooperatiboa da iaztik parkearen kudeaketaz arduratzen den entitatea.

Zizen bilketa jasangarria bultzatzea da parkearen helburu nagusia, eta horretarako gehieneko karga bat ezarriko dute baso-pista bakoitzean.

Kudeatzaile aldaketarekin webgune eta telefono zenbakiak ere aldatu egin dira aurten: parquemicologicoultzama.com izanen da interneteko gunearen helbide berria, eta telefonoa, berriz, 646 184 263. Ostiral, larunbat eta igandeetan 8:30etatik 15:00etara egonen da zabalik jendearendako arreta eta informazio zerbitzua.

Kanpaina berriari begira, hainbat jarduera proposatu dituzte, hala nola, mikologia ikastaro erdi-presentziala, bisita mikologiko gidatuak eta zizei argazkiak egiteko ateraldiak, parte mikologikoa eta mikologiari buruzko aholkularitza. Gainera, X. Onddo Egunaren data ere iragarri dute: urriaren 17an izanen da festa egun berezia.



Uxamako Javier Gomez eta Maria Manzanal ▲



Abian da honezkeroko parkeko denboraldi berria ▲



Nafarroako Bertsolari Txapelketa, abian

Izurritearen eraginez atzeratuta bada ere, -urte hasieran izan behar zuen- azkenean hasi da Nafarroako Bertsolari Txapelketa, 45.a Urriaren 2an hasi zen Izaban eta azaroaren 28an bukatuko da, Iruñeko finalean. Guztira, zortzi saio egingen dira, zortzi herritan: Izaban, Tafallan, Zangozan, Donezteben, Altsasun, Berriozarren, Leitzaan eta Iruñean. Lau final-laurden, hiru finalaurreko eta finala izanen dira.

29 bertsolarik eman dute aurten izena, eta pasa den ekainean jokaturako aurre-kanporaketen ondotik, 24 izanen dira txapela lortzeko lehian. Haien artean Goldarazko Endika Legarra eta jatorri etxalekuarra duen Sahats Aleman. Zortzi iritsiko dira Anaitasunako finalera, eta bakar batek jantziko du txapela. Harekin batera, hurrengo Bertsolari Txapelketa Nagusirako

beste lau ordezkari nafarrak hautatzeko ere balioko du txapelketak.

Esan Erran irratiko Egun Ero irratsaioan txapelketa jarraituko dute, eta horretarako, saio batzuetan Joana Ziganda bertsolari oskozarraren laguntza izanen dute, jarraitutako saioen kronika egingen baitie.



Nafarroako bertsolari txapelketan lehiatuko diren bertsolariak ▲



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

Etxean eginiko eguneroko menua
Hamaiketakoak - Parking zabala
Pizzak, Hanburgesak.... Oilaskoen eta
paellen eskaerak egiteko aukera



eta.... Ostegunero
sak aldera Pintxo Pote

EGUNERO IREKITA



Fruta eta Barazkiak - Haragi freskoa
Produktu ekologikoak eta bertakoak

Astelehenetik Ostegunera, arratsaldez...
10 Euroz gorako edozien erosketarekin

kafea edo kaña dohain.




Iñigo Astizek Jabier Muguruzaren 'Dodoa' disko berriaren letrak idatzi ditu

Haurrendako disko berri bat kaleratuko du Jabier Muguruzak, Dodoa, eta Iñigo Astiz ultzamarrak jarri dizkio hitzak.

Udazken honetan aterako da diskoa. Ez da Jabier Muguruzak Astizengana jotzen duen lehenengo aldia, 2018an kaleratu zuen Leiho bat zabalik diskoari izena ematen dion kanta ere berak idatzi baitzuen.

Dodoa lan berrian iaz kaleratutako Oker (txakurra da) diskoan parte hartu zuen musikari-talde berarekin egin du lan berriz ere Jabier Muguruzak: Nieves Arilla (ahotsa), Mikel Azpiroz (teklatuak) eta Jean Marie Ekai (gitarra) izan ditu lagun. Kide berri bakarra Karlos Aranzegi da (perkusioa). Azala Pedro Balmasedak diseinatu du.

Diskoa uda hasieran grabatu zuten Mikel Azpirozen Mamusik estudioan, eta Muguruzaren beraren Mara Mara zigiluak argitaratuko du udazkenean. Jabier Muguruzak grabatzen duen haurrentzako bosgarren diskoa da Dodoa. Ja, ja (IZ, 1989), Nire gorputza (Mara Mara, 2005), Harrizko hiztegia (Mara Mara, 2016) eta Oker (txakurra da) (Mara Mara, 2020) kaleratu ditu aurretik.





Euskal Pentatloiko finaletik bi segundora gelditu zen Julen Kañamares

Irailaren 11n jokatu zen Euskal Pentatloiko laugarren edizioaren bigarren kanporaketa, Azpeitiko zezen plazan. Julen Kañamares aroztegiarra zazpigarren postuan gelditu zen; bi segundogatik, ez zuen finalerako txartelik lortu.

Andoni Iruretagoiena Izeta VI.a izan zen garailea, 12:29ko denborarekin. Bigarren, Joseba Otaegi izan zen (13:09); hirugarren, Iñaki Errazkin (14:38); laugarren, Aritz Irazabal (14:44); bosgarren, Julen Gabirondo (14:51); eta seigarren eta finalerako azken sailkatua, Kepa Peñagarikano (15:00). Kañamares, Zelai V.a, Amade, Otaegi, Mugertza eta Etxeberria izan ziren, hurrenez hurren, azken sei postuetan gelditu zirenak

15 minutu eta bi segundotan bukatu zuen lana Julen Kañamaresek. 100 kiloko bola hamar aldiz jasotzea, gizon proban 400 kiloko harriarekin plaza bat osatzea, kanaerdiko eta 45 ontzako enbor bana moztea, 50 kiloko bi txingarekin hiru plaza betetzea eta lasterka kilometro bat egitea izan zen kirolari bakoitzak egin beharreko lana.

Bi segundogatik finalera sailkatzea lortu ez bazuen ere, lan bikaina egin zuen beste behin Aroztegiako kirolariak:

»Bai, bai, oso pozik. Asko hobetu dut, baina maila ere askoz hobeagoa da orain, eta lanean jarraitzeko ilusioarekin nago«, zioen.

Behin pentatloitik kanpo, aizkoran buru-belarri jartzea dagokio orain Kañamaresi. Irailaren 2an Lekunberriko frontoian jokatuko du Nafarroako Aizkora Txapelketako Lehendabiziko Mailako kanporaketa. Zazpi aurkari izanen ditu aurrez aurre.



Kañamares, lasterka ▲



TXAKUR JANARIA

CARLOS 660781595
Pili 650206699



Erabilera publikoa edo pribatua?

Eskualde honetan guztiok dakigu non dagoen Orgi hariztia, ziur aski noizbait ibilalditxoren bat edo beste egiteko aukera ere izan dugu gehienok. Orain hori egitea, aparkalekua ez badugu pagatzen, eta ez bada ezarritako ordutegi barnean, ezinezko bihurtu da.

Pertsona askoren bizipen desatseginak entzun ondoren, iritzia emateko gogoia piztu zait, guztion gozamenarako zen hariztia pribatizatu egin baitute, edo hala iruditzen zait niri. 2018an Gelbentzurako bidean dagoen sarrera txiki hori itxi egin zuten paseatzera zetozenentzat. Orduan ez zegoen pandemiaren aitzakiarik, eta harritu gintuen erabat. Kartel hori kendu egin zuten, baina orain beste bat dago, bertan aparkatzea debekatzen duena. Badira eskualdeko pertsonak betidanik hor utzi izan dutenak autoa bueltatxo bat emateko, eta orain bati baino gehiagori isuna jarri diote.

Zalantza hauen erantzunaren bila Lizasoko ordenantzarekin topo egin nuen. 2019ko otsailaren 9an onartu zuen Lizasoko Kontzejuak, nire uste apalean oso-oso debekatzailera. Ordenantza egin zenean Alfredo Garcia-Falces zegoen alkate eta harekin egin nuen hitzordua. Bi arrazoi azpimarratu ditu ordenantza egiteko beharraren aurrean: bandalismoa eta diru-sarreraren beharra. Berak dioenez, aurretik ere arazoak baziren, baina Granja Eskolako jendeak hartu zuenean Orgiko kudeaketa, argazki tamalgarriak erakutsi zizkieten kontzeju-kideei: jendeak ahalik eta mahai gehien okupatzen zituen familia osoarentzat, bozgorailuak ekartzen zituzten, borrokak izaten ziren...

Eta bestetik, aparkalekua Kontzejuaren eskuetara igaro zen,

eta kontzejua, berez, diru-sarrera gutxikoa izanik, dirua behar zuen. Lehenago zegoen elkarrekin (Garrapo), harek pagatzen zuen aparkalekuaren alokairua, baina orain nahiz eta kudeaketa Granja Eskolak eraman, kontzejuak ordaintzen du.

Alfredoren hitzetan, Nafarroako Gobernuak Orgiko gastuen %80-90 ordaintzen du, baina beste %10 hori nonbaitetik atera behar dute, eta hori aparkalekutik ateratzen dute.

Nire ustez kudeatzaileek Orgiko ordenantza azken muturreraino eraman dute, beharko lukeen sen onak gidatu beharrean diru-sarrerak lehenetsiz.

Egun hauetan ipuin kontalariak, liburu aurkezpenak eta kontzertuak izan dira Orgin.

Eta oinez doazenak edo bizikletaz ere aparkalekua pagatu behar izan dute ekitaldi hauetara joateko.

Karteletan sarrera doan dela irakurri dugu ipuin kontalarietara eta idazleei dagokionez, baina alboan izartxo bat agertzen da. Azpian, izartxo horren ondoan dio bertara joateko aparkalekuko tiketa erakutsi behar dela. Nahiz eta bizikletaz edo oinez joan, aizue.

Adibideak asko dira azkenaldi honetan, eta guztietan argi geratu zaigu pagatzen ez duena ez dela Orgin sartuko. Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila ...

 Arantxa Puignau

Lizasoko Kontzejuak 30 urterako akordioa sinatu zuen Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamenduarekin, Orgi mendi komunala erabilera publikorako antolatzeko.

1996. urtetik Nafarroako Jolas-eremu Naturala (ANR-1) izendatu zuten.

Jolas-eremuak sarbide errazeko eremu publikoak dira, eta Plan hau antolamendu-tresna egokia bihurtzen da basoa eta haren elementu azpimarragarrienak babesteko, eta era berean, aisialdirako eta ingurumen-hezkuntzarako leku ezin aproposago bezala erabiltzeko.

Eremu publikoak: edozein pertsonak bakean eta harmonian zirkulatzeko eskubidea duen tokia da, non pasabidea ezin den mugatu jabetza pribatuko irizpideen arabera.



▲ 2018an ikusten genuen kartela

Ekin zuri ametsari

Etorkizunez
beteriko herriak

Amaiak, Jesúsek, Leyrek, Iñakik, Raquelek eta Patxik lortu dute. Landa-inguruneak beren lanbide- eta bizitza-proiektua gauzatzeko aukerak eskaini dizkie. Baita modu jasangarrian, berritzailean eta bideragarrian gauzatzeko ere.

Sartu despopulazioa.nafarroa.eus webgunean, ezagutu beren istorioak eta ikusi ea zurearen hasiera ere izan daitekeen gure herrietan ekitea.



IKUS BIDEOA





Ikasteko aukera berdinak al dituzte landa eremuko gazteek?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) arte ikasi daiteke gure eskualdean. Lehen Hezkuntza Jauntsarasko Oihanzabal eskolan eta Larraintzarren, eta DBH Larraintzarko Ikastetxean. Eta, ondoren, zer? Gure eskualdeko gazteek Batxilergoa edo Lanbide Heziketa ikasi nahi badute, Iruñera joaten dira gehienak. Baina hori ez da beti erraza izan, gobernua ikasle horiei garraioa bermatzera derrigortu duten lehenengo ikasturtea baitugu aurtengoa. Hainbat udalek eta gurasok salatu dutenez, landa eremuan ez ditugu ikasketekin jarraitzeko aukera berdinak.

Orain arte derrigorrezko hezkuntzako ikasleek bakarrik zuten garraioa bermatua. 2020. urtean aldatu da hori, izan ere, Espainiako Gobernuak LOMLOE Hezkuntzako lege berria onartu zuen, Celaá legea deiturikoa, eta lege horrek administrazioa batxilergoa eta lan heziketako ikasleen garraioa ere bermatzera behartzen du.

Bitartean, Nafarroako Parlamentuan, eta landa eremuko hainbat udalek bultzatuta, EH Bilduk eta Navarra Sumak gobernuari legea bete dezan eskatu diote. Apirilean, Hezkuntzako Komisionan, hori bera eskatzen zuen ebazpena aurrera atera zen EH Bildu eta Navarra Suma alderdien aldeko bozekin, Geroa Bairen abstentzioarekin, eta PSNren kontrako botoarekin. Horrela, Nafarroako Gobernuak derrigortuta dago konponbide bat eskaintzera.



Maite Sanchez
Ikasle baten ama:

Iragarritakoa bete dezala, ez diogu besterik eskatzen gobernuari!



Arriskua, herrien hustea

Garraio falta honen ondorioak asko dira. Nabarmenenak, familiendako buruhausteak, esfortzua eta gastatu beharreko dirua. Orain arte, kasu gehienetan, gurasoen gain jarri da seme-alabak Iruñera eramateko ardura.

Basaburuko alkatearendako, ordea, ondorioak askoz ere sakonagoak

izan daitezke: "arriskua argi eta garbi ikusten genuen: deus ez badago antolatuta, jendeak, normala den bezala, irtenbide bat bilatzen du. Irtenbide hori zein izaten da askotan? Familiaren pisuren batean edo erresidentzietan gelditzea, Iruñean, astean. Horrek deserrotzea eta herrira geroz eta gutxiago itzultzea ekartzen du askotan".



Ainara Urritza,
Eraso

Erasoko Ainara Urritza Imotz utzi eta Iruñera joan zen familiaren pisu batera, 2. batxilergoan.

"Latasan uzten ninduen autobusak eta hortik etxeko norbait etortzen zen nire bila, baina zenbaitetan oinez ere igo izan naiz. Arratsalde nahikoa izaten ahal nuen baina nahiko nekatuta eta motibaziorik gabe ailegatzen nintzen, eta ez nuen gogorik izaten ikasteko ere. Irtenbide bat bilatu behar izan nuen aitzinera egiteko eta Iruñean pisu bat bagenuenez, hara joan nintzen. Herriak hustea gerta liteke horrelako kasuetan, eta ikaragarritzko pena ematen du".

Konponbideaz galdetuta, honela dio: "Eskualdeko ikastetxe bat egon beharko luke, 18 urtera artio, bertako gazteek aukera izateko bertan ikasteko eta bertakoekin harremana izateko. Azken finean, batzuk Larraintzartik Iruñera joaten dira, Ultzamakoak eta Basaburukoak kasu. Bestetik, Imozkoak Iruñea aldera, baina beste ikastetxe batera, eta Lekunberri aldekoak azkenaldian Leitzara. Beraz, mendialdea hartzen duen zentro bat ongi egonen litzateke. Baita gure bailarako garraio zerbitzua hobetzea ere".



Konponbide nahikoa?

Momentuz, gure eskualdean ezarri den neurria orain arte dauden baliabideak dimentsionatzea izan da. Eta zer esan nahi du horrek? Ultzaman, adibidez, A ereduko ikasleak eramaten dituzten autobusetan, bestelako ikasleek aprobetxatu ditzaten, plaza gehiago eskaintzea litzateke. Gauza bera Irurtzundik Iruñera ere. Baina, guraso batzuek salatzen dutenez, ez dituzte esandakoak bete: "Gure semea Irurtzuna bidaltzen dute Biurdanan ikasten duelako, eta, jakin badakit, tokirik gabe gelditu direla asko, eta ez dituzte autobus gehiago jarri", adierazi digu Itsasoko Maider Astizek.

"Iragarritakoa bete dezala, ez diogu besterik eskatzen!", adierazi digu Maite Sanchezek, Basaburuko taxia hartzen duen gazte baten amak. Mikaela Elizalde: "Gure seme-alaben hezkuntzaz ari gara, gobernuak lehenetsi beharreko gauza da. Ez dut demagogiarik egin nahi, baina AHTaz ari dira, ez dakit nondik ordu batean iritsiko dela, eta gero gure seme-alabek ez dute modurik herritik Iruñera joateko!".

Basaburuko alkateak, Esther Lakastak, behin behineko neurria izatea espero du: "Hezkuntzak esaten duenaren arabera, hasiera

da eta hobetzen joanen da. Ezer ez egotetik orain hori dugula esan ziguten, baina horrek ez ditu inondik inora beharrak asetzen. Diruz lagundu beharko dute, taxiaren kostearen zati bat bere gain hartu beharko dute".

Basaburuan, Udalaren laguntza

Horregatik, udalak taxiak antolatzen ditu Ultzamara eta Iruñera. "Gure gazteek eskubidea dute edozein haur eta gazte bezala ikasteko, eta ez zaie kaltetu behar landa eremuan bizitzeagatik". Pasa den urtean hamahiru ikasle ziren eta 43.000 euro baino gehiago izan zen zerbitzuaren kostea. Udalak 33.120 euro ordaindu zituen, eta gainontzekoa familien artean. Baina geroz eta zailagoa da antolatzea aurten hamazazpi ikasle baitira. "Oso konplikatu da. Gure eremua zabala da, herriak oso dispersatuta daude eta haur guztiak jasotzeak eta haien tokira eramateak denbora eskatzen du. Iruñerako bidea ordu erdikoa bada, ordubeteko bihurtzen da, edo gehiago. Beraz, badakigu ez duela guztia konpontzen", adierazi digu Lakastak.

Basaburuko udalan ere, gurasoek bezala, erantzukizuna Nafarroako Gobernuarena dela uste dute: "Hainbeste oihartzun eman nahi badiete despopulatzearen aurkako

neurriei, hemen aukera polita dute". Izan ere, duela hilabete batzuk jakin zutenez Lurralde Kohesiorako Departamentuak 1,7 milioi euro inbertitu nahi ditu herriak hustutzearen aurkako neurrietan, Lakastak salatzen duenez ez dute horretaz ezer jakin. Horregatik gehiago eskatzen jarraituko dute: "Bere gain hartu dezatela garraioa ordaintzea. Eta, ez hori bakarrik, orokorrean hobetu dezatela garraioa gure herrietatik Iruñera joateko, lotsagarria baita".

Esther Lakasta,
Basaburuko alkatea:

“ Ezin dira gure gazteak zigortu landa eremuan bizitzeagatik ”

Iruñeko ikasle batek hiri-autobusean dezakeena: 386 euro gastatu

Basaburutik Iruñera joan behar duen ikasleak: 2.275-3.322 euro bitartean

Unai Elizalde, batxilergo zientifiko- teknologikoa

"Etxera 16:10ean iristen naiz, bazkaldu gabe. Berandu egiten da etxeko lanak egiten hasten zarenerako eta nekatuta iristen naiz, baina, beno, jasan dezaket".

Leire Barberena, Osasun Zientziak

"Berueten 16:30 aldera iristen gara bueltan. Ordurako, Iruñakoek etxerako lanak egiten hasi daitezke. Baina gustura bizi gara hemen, beraz, azkenean, ez du inporta, ez genuke Iruñean bizi nahi".

Jokin Mikeo, Batxilergo zientifiko- teknologikoa

Bai, oso gose iristen gara (barreak). Bazkaldu eta oso nekatuta banago siesta egiten dut. Ondoren hasten naiz etxerako lanekin, eta gero denbora libre. Azkenean ohitu egiten zara.





Euskaraz irakurtzeko eta gozatzeko parada, Imotzen eta Ultzaman

Euskarazko bi irakurle talde ditugu martxan gure eskualdean: Imozkoa eta Ultzamako 'Euskaraz gara' taldea. Euskarazko liburuak irakurtzea eta horien inguruan hitz egitea da taldeen helburua; azken batean, euskararen arnagune bat gehiago dira espaziook. Bi taldeek ere zabalik dituzte ateak eta irakurzaletasuna duen edonor bertan parte hartzera gonbidatzen dute. "Euskaraz aritzeko aitzakia ederra da!", dio Puri Etxeberria Ultzamako taldekideak

2019ko irailean sortu zuten Imozko irakurle taldea hainbat herritarrek, tartean Sagrario Aleman etxalekuarrak. "Etxalekuko lagun batzuk hasi ginen, baina Basaburutik ere etortzen dira, eta Ultzamakoren bat ere bai". Larunbat goizetan egiten dituzte hitzorduak, eta gutxi gora behera hilabete bateko tartea uzten dute liburuak irakurtzeko. "Euskaraz irakurtzea da gure helburua, zaletasuna duten horiek askotan erdaraz irakurtzen baitute". Bost bat liburu irakurri dituzte orain arteko ibilbidean, eta pandemiak eragindako geldialdiaren ondoren, berriz hastekoak dira orain.

Berrixeagoa da Ultzamako taldea, 2020ko urrian sortu zuten. "Erdarazko irakurle taldea aspalditik zegoen martxan, 2016tik edo. Bat-batean, esan genuen: 'euskarazko taldea ere hasi behar genuke!'", gogoratzen d i t u hastapenak

Puri Etxeberria kideak. Euskaraz aritzeko eta euskal idazleak eta lanak ezagutzeko elkargunea sortzea zuten helburu Ultzamako taldekoek ere, eta koronabirusaren pandemia tarteko izan arren, hastapenetik sei liburu irakurri dituzte honezkerok.

Lauzpabost lagun elkartzen dira talde bakoitzean. Ultzamakoan, Imozkoan bezala, hilean behin elkartzen dira gutxi gora behera. "Dena dela, ez gara epeekin erabat zorrotzak, eta kide bakoitzaren erritmoak errespetatzen ditugu. Elkarri galdetzen diogu ea nola goazen, eta guztion artean markatzen ditugu epeak", dio Etxeberriak.

Gaiak eta generoak, askotarikoak

Irakurle taldeendako liburu loteak eskaintzendentu Nafarroakoliburutegi sareak, eta hortik jasotzen dituzte liburuak Ultzaman. "Hor egoten diren liburuen artean aukeratzen ditugu irakurriko ditugunak. Ez dugu gai aldetik-eta helburu zehatzik izan orain arte, irekiak gaude eta gauza desberdinak irakurri ditugu", dio Etxeberriak. Imotzen, berriz, liburuak bakoitzak bere aldetik eskuratzen ditu. Han ere ere denetik irakurri izan dute: nobelak, ipuin edo kontaketak, itzulpenak, jatorrizko lanak... Gainera, hurbileko idazleren bat ere gonbidatu izan dute irakurle taldera; esaterako, Mikel Tabernaren

“
Euskaraz aritzeko eta euskal idazleak ezagutzeko aukera bikaina dira irakurle taldeak”

bisita izan zuten haren Txokolatezko dinamita liburuak irakurri zutenean.

Bi taldeek zabalik dituzte ateak interesa duten herritarrendako, eta haiekin bat egiteko dei egin diete irakurzaletasuna dutenei. Ultzamako taldean parte hartzeko hango liburuzainarekin jar daiteke harremanetan, liburutegira deituz. Imozko taldean parte hartzeko, berriz, zuzenean kideengana jotzea da onena: Imozko Sagrario Aleman eta Basaburuko Benito Alberrorenana.

IRAKURRITAKO LIBURU ZENBAIT:

Ultzamako taldean: Arantxa Urretabizkaiaeren Zergatik panpox eta 3 Mariak, Kirmen Uribereren Elkarrekin esnatzeko ordua, Fermin Etxegoienaren Autokarabana, Jon Maiaren Riomundo.

Imozko taldean: Filip Bidarten Bakartasunaz bi hitz, Patxi Larrioneren Feriatzaileak, Mikel Tabernaren Txokolatezko dinamita, Eider Rodriguezen Bihotz handiegia



Ez sakabanatu eskolan haur euskalhiztunak!

208. Pulunpe aldizkarian, ekainekoan, eskualdeko eskolekin bildu ginen ikasleen hizkuntza ohituren inguruan gehiago jakiteko. Euskararen erabilpen eskasagatik kezkatuta daude irakasle eta gurasoak. Erreportajea argitaratu eta gutxira, kezka hori duten guraso euskaldun talde batek idatzitako eskutitza jaso genuen. Testua laburtu eta hona ekarri dugu, eztabaidarako eman dezakeelako uste dugulako. Eskutitza osorik amezti.eus-en dago irakurgai

Eremu erdaldunuetan bizi diren 2 eta 14 urte bitarteko haur euskalhiztunek ez dute erraz izaten euskaraz egitea parkean, kalean edota eskolan. Eskolan, hain justu, lehentasunezkoa izan beharko litzateke arnasguneak sortzea eremu erdaldunetako haurrentzat. Horren orde, baina, ikastetxeetan haur euskalhiztunak sakabanatu eta, ondorioz, erdaldundu egiten dituzte sarritan, dela estrategia okerrari jarraitzen zaiolako edo, makurrago dena, estrategiarik ez dagoelako. Nola liteke euskara indartzeko arnasgunea izan beharko litzatekeen lekua erdalduntze gune bilakatzea?

Gure seme-alabak euskaraz eroso bizitzea xede, beraz, Eskola Publikoko eskoletan eta Ikastolen Elkarteko ikastoletan matrikulatu genituen, zentro horiek euskara sustatzea misiotzat daukaten neurrian gure helburua bermatuta egongo zelako ustean. Baina

ikastetxeotan aurkitu dugun egoerak helburu hori betetzen lagundu barik urrundu egiten du. Izan ere, gure seme-alaben jolastordu giroan, eta hein handi baten gela barruan ere, ikaskideek elkarrekin darabilten hizkuntza gaztelera da.

Horren ondorioz, gure seme-alabek euskararen erabilerarekiko uste etsigarriak garatu dituzte, gaztelera ez erabiltzeak ekar diezazkiekeen integrazio arazoan beldurrarekin lotutakoak. Eurok adieraziak dira: "Ni euskaraz nabilen bakarra naizenez, ezberdina ez izatearren, batzuetan erdaraz egin behar dut" edo "Ama, lagunek esan didate ea zergatik ez dudan espainolez hitz egiten? Utziko didazu?". Hala, gaztelera hitz egitera edo gaztelera dabilzanekin interaktiorik ez (edo gutxi) izatera jo dute. Estres linguistikoa pairatzen dute, eta horrek euskararen erabileran ere eragiten die, txarrerako.

Gune erdaldunetan ezinbestekoa da, beraz, eskolan, ikasgelan, haur euskalhiztunak ez bereiztea. Inongo biziberritze prozesutan ez baita hizkuntza bat zabaltzen dauden hitzun apurra hizkuntza hegemonikoaren erabiltzaileen artean nahasita. Hori eginez gero, kontrakoa gertatzen da: hizkuntza gutxiagotua ahuldu egiten da. Beraz, arnasgune funtzionalak sortzea da bidea, gure haurrak euskaraz biziko badira normaltasunez, larritasunik gabe. Arnasgune bilakatuko diren ikasgeletan haurrak elkartuta soilik sortuko baita motore eta antena efektua.

Alabaina, gure haurrak beste haur euskalhiztunekin elkar ditzatela eskatu dugunean ukatu egin digute aukera, "irizpide pedagogikoen, aniztasunaren eta inklusibitatearen izenean". Ez gatoz inondik ere bat. Aniztasuna eta inklusibitatea gaztelera baino ezin dira bermatu, ala? Aniztasuna eta inklusibitatea nahi ditugu geuk ere, baina gure herrian, geure hizkuntzatik, euskaratik, hain zuzen. Edozein herri normaletan gertatzen den bezala.

Hizkuntza arloan nor ateratzen da irabazten gaur egungo taldekatze irizpideekin? Euskal hitzuna den umeak gaztelera jotzen baldin badu, nork egingo du euskaraz? Orain, denak ateratzen dira galtzaile.



Arnas Dezagun
guraso taldea



▲ Eskolan ikasleek euskara gutxi erabiltzen dutela ikusita, kezkatuta daude guraso asko



Etxalekuko pilotalekua

Ehun urteurrena aurten

Etxalekuko pilotalekua, herriaren erdi-erdian kokatua dago. Hori orain da, baina garai batean herriaren alde batean zegoela esan genezake. Toki guzietan bezala, **luzean** aritzen ziren oraingo pilota modua etorri zen artio. Hau da, tenisean bezala, jokalekuaren erdi-erdian marra eta jokalaria bi aldeetan jarrita. Ez zen frontisik izaten.

XX. mendean frontisa eta ezker pareta zuten plazak sortu eta modan jarri ziren eta **laxoa** edo **luzea** gainbehera etorri zen.

Alderdi honetan ez dakigu non hasi ziren, Iruñean edo hasiko ziren. Guk Beltzuntzen, 1896an, ikusi ahal izan dugu oraingo moldean jokatzeko zela.

Zian ere, XX. mendearen hasieran edo, pilotaleku eder bat egin zuten.

Etxalekun ere pilotalekua nahi eta 1920ko martxoaren 28an egindako batzarrean, horrela aipatu zuen **Dorrotoko** Jose Arano Armasa, Alkateak:

Jai egunetan, maiz, pilotaleku baten faltan gazte jendeak hurbileko herrietara alde egiten du atsalde pasa -eta zenbaitetan, dirudienez, gaua ere bai... horrek dakartzan kalte moral eta materialekin. Hortaz, herriari eskatzen diot pilotaleku bat eraiki dezan plaza zaharrean edo herriguneko beste tokiren batean.

Batzarrearen proposamena pilotaleku zaharraren ekialdean egitea izan zen. Ustez, **Arotzenearen** orubea ere hartu zuten pilotaleku berria egiteko.

Batzarrera jende asko bildu zen, firmatu zutenak bakarrik kontatuta, hamahiru lagunek egin baitzuten. Pilotalekuaren espa bazen! Hala ere, bi lagun atera ziren kontra, Francisco Erbiti Erbiti eta Lorenzo

Aldaregia Goñi, **Zapatiñeneko** eta **Apezeneko** nagusi zaharrak, berriki ahaide bihurtu zirenak, Apezeneko Filomena Zapatiñenera ezkondu baitzen bertako semea zen Joaquinekin, hain zuen urte bereko otsailaren 13an.

Franciscok frontisa ikusten zuen oztopo, bere etxeko ataritik hurbilegi -30 metro zeuden- eta **Apezenek** berriz, konforme zela baina herriaren gain izan gabe; hau da, zerbait esan behar eta.

Juaniko Erbiti oraingo **Zapatiñeneko** nagusiak noizbait esan izan zigun bere aitatzik frontisa bestaldean jartzea nahi izan zuela.

Eta Diputazioa jo zuten, lehenak apirilaren 16an eta bigarrenak maiatzaren 14an. Dena dela, laster egin zituzten paperen kontu guzi hauek. Diputazioak eskatu zuen hil honen 19an txosten bat egiteko herriko bi zaharrenei deklarazioa hartuz lau galderei erantzuteko.

Galdera bitxiena azkena zen eta honela erantzun zuten: **Francisco eta Lorenzok egin nahi zuten**


*bezala bide bezinalak ezabatuko ziren eta, gainera, **Mokorroko** eta **Txurdanekoei gurdiekin etxeratze erosoa eragozten zitzaien.***

Jakina, **Zapatiñenek** eta **Apezenek** bilatzen zuten soluzioa ez zen egokia eta Diputazioak ez zien arrazoirik eman.

Horrela, Donostiako ingeniaria zen Fidel Jadraqueri planoak eginarazi, eta 1920ko azaroaren 7an subastara atera ziren lanak eta Jacinto Elizalde Saldiasako kontratistak hartu zituen, 1921eko maiatzaren 1ean hasi eta ekainaren 30ean bukatzeko, dena 9.593 peztetan. Kontuak egiterakoan 10.019,60 pza izan ziren.

1921eko urtean, etxez etxe aldatzen baitzen Alkatetza, Pedro Etxeberria Goldarazena, **Mokorro**, suertatu zen Alkate eta honen denboran izan zen inaugurazioa.

Urte berean jarri zuten ezquila berria, zaharra urtu ondoren; eta erloju berria ere bai, ustez, nahiz aurreko urtean ordaindua izan.

 **Txurdan**



Etxalekuko pilotalekua, oraingo modan, berdez pintatua. ▲



Pilotalekuaz beste zenbait kontu

Zian eraiki baitzuten alderdi honetako lehen pilotaleku modernoa, Teodoro Babatzek eraikia, bertan pilotari bizkorrak izan ziren. Eta herritik kanpo ere ateratzen ziren pilotan aritzera. Sumatu izan ditugu Etxalekun, Jauntsaratsen eta Irurtzunen bederen.

Etxalekun zein izan ote zen lehen partida handia? Aurki **Marijoaneko** Vicente Erbitik Berastegiko Miguel Mari Mendizabal Gartziarenaren kontra jokatu behar zuena? Hori dugu topatu hemerrotekan, baina 1921eko martxokoa da. Pilotalekuko lanak epea baino lehen bukatu ote zituzten ba? Edo hiru hilabeteko aurrerapenarekin anuntziatu ote zuten pilota partida? Bixentek 27 urte zituen eta berastegiarrak 40 bat.

Pilotaleku honek ere badu beste historia polit bat. Pilotalekua egiterakoan, ederki zehaztua zegoen zer material mota erabili behar zen. Adibidez, zolarako lehen kapa, zortzitatik 5 graba, 2

area eta 1 porlana. Eta gainetik, luzitzeko bostetik lau area eta bat porlana.

Zola hau hondatzen laster samar hasi zen eta 1956. urterako oso hondatua omen zegoen, baina kontzejuak deus egiten ez, dirua zela eta.

Jende jakituna izaten da herri guzietan eta horietakoren batek edo esan izandu dit behin baino gehiagotan: *Bakik, erreka ariak lurre iamaten dik askotan eta, masa txarra in dui'kabe ta... Gio dena hondatu!*

Ez dago deus gehiago esan beharrik.

Horrela, gazteria oso nazkatua pilotalekuko zolarekin, eta igande gau batez ostatuan gauzak nahasten hasi eta sutu zen kontua. Bakarren bat ere izanen zen bazterretik su ematen, nahiz gaueko azken orduetan behar handirik ere ez izan. Kontua da, lau mutil ostatatik atera, pikoak hartu eta pilotalekura joan zirela

zola jorraztera. Bai jorraldi ederra eman ere.

Hurrengo egunean kontuak! Herriak batzarrea egin eta hura ez zitekeela inola ere onar eta ez zela horrela geldituko. Isun ederrak ordainarazi beharko zitzaizkiela.

Herriko nagusiak irringarri gelditu eta oso haserre. Dena dela, gauza agudo hoztu zen eta ez zen deus pasatu.

Handik laster herriak konpondu zuen zola eta paretetako zati batzuk ere bai, errebokea zintzilik baitzegoen.

Oharrak:

“herriaren alde batean zegoen”. Jakina, geroztik etxe asko eta asko egin dira eta pilotalekua herriaren erdian gelditu da.

“Arotzenea” herriak erositako etxe bat zen eta XVIII. mende bukaeran errea.

“Hamahiru lagunek firmatu zuten”. Hauei gehitu behar zaizkie firmatzen ez zekiten guziak edo nahiz jakin, firmatzera hurbiltzen ez zirenak.



▲ Kaldurra (gandorra), bere idazkunarekin, behar bezala idatzia, “1921GAREN”, azentuarekin. Orain horiz dago pintatua, ederki, baina, nonbait, pintoreari azentua atzendu zaio. Tanta erori zaiola esanen du. Ai, ai pintore hauek!

Hiztegia

Berezitasuna: peculiaridad

Kokatua: Situado

Ekialdea: Este

Orubea: Solar

Txostena: Informe

Ezabatu: Deuseztatu, kendu

Eragotzi: Impedir

Eraiki: Construir, levantar

Hemeroteka: Hemeroteka, egunkariak eta aldizkariak gordetzen den lekua.

Zehaztu: Concretar

Adibidez: Por ejemplo



Xiberotarra ikasten

Xiberoko euskara ikasteko barnetegian izan da udan Alazne Fernandez de Muniaín imoztarra

Duela urtebete inguru izan zuen xiberotar euskara ikasteko barnetegiaren berri Alazne Fernandez de Muniaín imoztarrak, eta segituan piztu zitzaion hara joateko gogo. Euskal hizkuntza eta filologia masterra egiten ari denez, gainera, hango hizkerarekin harreman estuagoa izan du azken urtean; horregatik, bi aldiz pentsatu gabe eman zuen izena uda honetako barnetegian. Esperientzia oso ederra izan dela kontatu digu

Noiz eta non egiten da Xiberoko euskara ikasteko barnetegia?

Aurtengoa Ligin izan da, Zuberoako Basabürüan, Uhaitza aterpetxean. Erreka esan nahi du Uhaitzak. Leku zoragarria da. Uztailaren 26tik 31ra bitartean egin zen barnetegia. Dena den, normalki Mendikotan izaten da, Mauletik hurbilago, baina aurtun lekuz aldatu dute.

Nori dago zuzenduta barnetegia, eta zein profiletako jendea elkartzarete bertan?

Interesa duen mundu guztiari dago eskainia. Egia da, nik maitasunetik esaten dudan bezala, 'euskal frikittoak' bildu ginela hor, alde filologikoa, euskalkiak, dialektologia eta abar maite dugunok. Baina guzti hori baino gehiago da barnetegia, ez da alderdi akademikora mugatzen, bizipen oso bat da: euskal kultura, kantuak, dantzak, udaleku sentrazio hori... oso giro goxoa izan genuen eta oso gustura sentitzen nintzen familia ttipi horretan! 30 bat

“
Barnetegia ez da alderdi akademikora mugatzen, bizipen oso bat da
”

lagun ginen, tartean hegoaldekoak, Ipar Euskal Herrikoak, euskal diasporakoak, biarnesak, bretoiak, eta australiarren bat ere bai. Pentsa ze nahasketa!

Ezagutza minimorik ez da eskatzen, beraz?

Ez, hiru taldetan banatu gintuzten han: euskaldunak ginenak baina Xiberoko euskaraz tutik ulertzen ez genuenak, xiberotarrez tarteko maila bat zutenak, eta azkenik, kanpotarrendako, euskaraz ere deus egiten ez zutenak eta hutsetik hasten zirenak.

Nolakoa zen barnetegiko egun bat?

Goizeko 8:00ak aldean esnatzen ginen eta gosaldia egiten genuen. Klaseak 9:00etan hasten ziren, 13:00ak arte, eta tartean pausaldia genuen kafetxoa hartzeko eta sozializatzeko. 13:00ak aldean bazkaria izaten zen; txandak antolatzen genituen gure artean otorduak-eta banatzeko. Arratsaldeetan txangoak edo lantegiak izaten genituen: arotz bat hurbildu zitzaigun, sokekin korapiloak egiten ikasi genuen... jarduera horiek aitzakia ziren



Buhameen abestia jo zigun irratian Alazne Fernandez de Muniaínek ▲



xiberotarrez mintzatzeko eta hiztegi gehiago lantzeko. Solasaldiak eta liburu aurkezpenak ere izan genituen. Esaterako, Nicole Lougarotek Buhameak, istoriorik gabeko jendeak? liburua aurkeztu zigun.

Xiberotarra ikasteaz gain, harreman politak egiten dira, ezta?

Oso! Familia giroa egin genuen, eta oso harreman bereziak sortzen dira. Azkenean, mikromundu horretan oso eroso sentitzen ginen, euskararen gai hauekiko kezka eta 'harrikadak' komunean baikenituen. Zailena denbora pasa ahala erlazio horiei eustea da, baina

saiatzen ari gara, udan elkartu gara eta udazkenean ere Zuberoa aldera bisitak egingen ditugu.

Bueltatuko al zara datorren urtean?

Prefosta! (jakinal!)

“ 30 bat lagun ginen barnetegian Euskal Herriko ez gain biarnesak, bretoiak, eta australiarren bat ere bai ”



▲ Ligiko Uhaitza aterpetxean izan zen aurtengo barnetegia



▲ Txangoak eta lantegiak egiten zituzten arratsaldeetan. Irudian, ikasleak ibilaldi batean

BUHAMEAK, ISTORIORIK GABEKO JENDEAK?

“Hemen agoteak zeuden bezala, buhameak zeuden han. Ijitoak, azken finean; leku guztietan baztertuak izan direnak, baina euskal gizartearen parte ere izan direnak. Haiekiko ditugun aurreiritziak, maskaradetan-eta lantzen dituzten haiekiko ideiak, eman zaien tratua... guzti hori kritikatzeko eta buelta emateko sekulako ikerketa eta bilketa lana egin du Nicole Lougarotek liburu honetan. Aurkezpenen bidez buhameen aldeko aldarria zabaltzen ari da, maskaradetan ere haien papera alda dadin eskatzeko. Kantu bat erakutsi zigun Nicolek, buhameen aldeko kantua, nahi gabe barnetegiko kantoia bihurtu genuena”. Honela dio letrak:

EKIALDE

Ekiaren ekialdean Ekialde
Sortaldearen sartaldean
Mendebalde
Hegoaren bide bürüan Iparralde
Eta ni bideen artean lau aizen jabe

Beti nor ekialdean
Edireiten da bidean
Kantu bat gogoz aidean
Biziaren izenean

Rom Sinti Buhame Gypsi
Ber koloreko irrintzi
Atzo egün bihar etzi
Goiz ekiari ez etsi

Jin baledi oren latza
Hunaintiko akabantza
Arrahas dezagün dantza
Bizi nahiaren hatza

Hi tzigano entzün ezak
Gilikeautüko deiat
Bidez bide hebertik harat
Honki jin hire etxerat



Iraineekin segituz (IV)

Irpurzikinak eta zoldazuak

Igande goiza. Oraindik goiz da. Ama eta biok gaude sukaldean, ama mezara joan baino lehen, eguerdirako otordu lanak aurreratzen. Ni ere zerbaitetan ari naiz. Paper zikintzen ari naizela esan beharko nuke.

Eta eskaletan beheiti sumatu dugu, -tak, -tak, -tak...

Billobatxoa dugu etxean, bezperan bere amak ekarri digulako.

Beti ezkerreko hanka aurretik botatzen duela, eskaletako mailak, banan-banan, jaisten ari da, -tak, tak, -tak.

Sukaldean agertu zaigu irriz-irriz nexkato **pertxenta**, oraindik hiru urte bete gabekoa.

Eta amatxik horrela errezibitu du:

-Hau **xoldaxuttoa!!!** Hainen goiz eta dagoeneko jaikirik? **Xoldaxue xu!** Zergatik jaiki zara hainen goiz?

Gure haurra **xoldaxua**? Bai, bai, ongi garbia da, baina **xoldaxua**, halakoa! Hamarrak aldera jaiki behar eta oraindik zortziak jo gabean ez zaigu ba azaldu sukaldean!?

Lehengoan entzun nion amatxiri auzoko mutiko lotsagabe bati buruz:

-Zoldazua, ez besteren **zoldazua!**

Horrela dira irainak, askotan irain gogorra izatetik, leuna izatera pasatzen dira, Z bat X bihurtuz. Edo ttikigarri bat sartuz, adibidez, **-ttoa**, sartuz. Areago, irain gogor samarra izatetik hitz maitagarri bat izatera eramane zuen amatxik, **xoldaxuttoa!** esan zionean.

Zoldaz ari garela, **zikina** datorkit burura. **Zikina! Ipurzikina, hankazikina, Aztalzikina!** Lepazikina. Hala ere irain gogor hauek, askoz ere leunagokoak dira **xikina, ipurxikiña, hankaxikiña...** batez ere umeei esaten diegunean. Ez dago esan beharrik, adin bereko bati esan eta nini edo haur bati esan ez dela gauza bera. **Nori, noiz, nola.** Hori da ba, jakin behar dela hizketan! Jakin behar dugula **norekin** ari garen, **nola** azaltzen dugun, ahotsaren doinua **nola** modulatu... Ahozko hizkera da, eta hizkuntzak batez ere hizketarako behar dira, eta zoritxarrez ez da eskolan ikasten aho hizkera, baizik eta etxean eta karrikan.

Kontua da, euskara karriketatik ihesi joan zaigula, edo, hobeki esan, lanztar batek esan zidan bezala: "nos han quitado el vasco". Nolanahi gisa, hau beste kontu bat da.

Eta gaurko ARDO FREXKOA bukatzeko, esan nahi nuke "gaizki hitz eginez" ere ongi ikas dezakegula. Irainak ikasiz eta erabiliz, gure hizkera aberastu dezakegula, hizkera modulatzeko, leuntzeko edo gogortzeko, hizkerari kolorea ematen... Batez ere **aho hizkera** lantzen. **Gazteok! Ongi mintzatzen ikasteko, beharbada gaizki mintzatzen ikasi beharko zenukete. Irainak ikasiz, esan nahi dut.**

Lagunok, ni banoa ostatura, ardo frexkoa edan bidenabar adiskide artean irainen batzuk ikastera. Izan ongi.



Txurdan

Hiztegia

Iraina: insulto, ofensa.

Pertxenta: airosa

Zoldazu: 1) oso zikina dena. 2) **oso atrebitua eta noiznahi eta nonahi, behar eta nahi ez denean agertzen dena, adibidez.**

Zolda: Gauzei, eta batez ere pertsoneri atxikitzen zaien zikintasuna.

Xoldaxua: **Zoldazuren** modu leuna. Gehiago oraindik, maitekorra ere badena.

Zikina: Hau denok badakigu zer den, hor goiti jarri ditugu irain batzuk zikinekin ibiltzeko. Hala ere, zikina irain batzuen indargarri izaten al da: Alu zikina, Ergel zikina, Deabru zikina, Lotsagabe zikina...



Enara bere etxetxoan ortzirik. ▲

Zorionak Zorionak!



Zorionak Hegoi!



Zorionak Tasio eta Nagore!



Zorionak Maier!



Zorionak Alvaro!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Zorionak Mihel!



Zorionak Martin!



Irati Munduate: “Joko bat bezala izan zen hasieran balleta, eta pixkanaka ikusi nuen horrekin bizi nahi nuela”

Basaburuan ballet ikastaroak proposatzen dituen kartelarekin egin dugu topo, eta kuxkuxean ibiltzen hasita, hara non konturatu garen Imozko herritar batek eskaintzen dituela klaseak. Irati Munduate muskiztarra da bera, Kalbat dantza eskolako burua.

Donostian ikasi zuen balleta eta jazz dantza, eta 17 urterekin Madrilera joan zen Alicia Alonso Dantza Institutuan ikastera. Denbora gutxira eskola utzi eta bere kabuz hasi zen ikasten, akademietan eta musika arloko ikuskizunetan parte hartuz. Donostiara bueltatu zen gero; han kinesiologia ikasi eta dantza klaseak ematen hasi zen. Han eman ditu azken urteak, baina orain eskualdera itzuli eta gurean zabaldu nahi du dantza

Balleteko taldeak

Aurre-dantza

(4-5 urte), asteazkenetan

Ballet I

(6-7 urte), ostegunetan

Ballet II

(8-10 urte),
astearte eta ostegunetan

Moderno eta jazz-eko taldeak (konfirmatzeke)

Moderno/Jazz

+11 urte: asteazkenak, 18:30-19:30

Moderno/Jazz

Helduak:
asteazkenak, 19:30-20:30

Noiz eta nondik nora hasi zinen balleta ikasten?

Lau bat urte nituela hasi nintzen. Nire ama euskal dantzetan aritu zen, eta berak balleta egin nahi zuen txikitan, baina nire amonak ezetz esan zion, hori jende aberatsarentzako gauza zela eta. Oso ohikoa zen lehen hori pentsatzea. Horrela, nire amak pentsatu zuen: “Noizbait alabarik badut, balletera joanen da”. Hasieran joko bat bezala izan zen niretzat, eta pixkanaka geroz eta ordu gehiago sartzen hasi nintzen, ia konturatu gabe! Ikusi nuen horrekin bizi nahi nuela.

Diziplina handiko kirola da, ezta?

Bai, diziplina badago, baina maitasunarekin ere egin daiteke. Agian buruan duguna eskola errusiarra da, eta egia da oso zorrotzak direla, baina ez du zertan horrela izan. Gauzak eboluzionatzen eta aldatzen doaz. Diziplina izan dezakezu, eta guk horrela egiten dugu, baina maitasunarekin eta enpatiarekin. Eta noski, konturatzen [klasean] aurrean dituzunak umeak direla eta ez profesionalak.

Umeendako eta helduendako ikastaroak prestatu dituzu. Ez dago balleterako adin mugarik?

Inoiz ez da berandu balleta dantzatzen ikasteko! Beti dago nozio hori ballet klasikoa bakarrik umeentzat eta profesionalentzat dela, baina ez da egia. Onura asko

ditu, eta helduentzako hastapen gisa oso kirol ona da. Azkenean, espresioa asko lantzen da eta norbere gorputza ezagutzea ere garrantzitsua da, normalean denbora asko pasatzen baitugu eserita, gorputzari kasurik egin gabe... Aldi berean, buruarentzako ere ona da: ariketak ikasi beharra dira momentuan eta hori ere lantzen da. Beti jar daitezke klase errazak, pixkanaka hobetzen eta aurreratzen joateko.

“ **Diziplina egon badago balletean, baina maitasunarekin eta enpatiarekin egin daiteke** ”



25 urterekin hasi zen Munduate ballet klaseak ematen, Donostian ▲



Liburutegia, irakurzaletasun jasangarria partekatuz



▲ liburu batzuk

Aldez aurretik irakurri gabeko liburu bat irekitzea gozagarria da beti. Lehenengo hitzak, esaldiak, orrialdeak,... istorio eta mundu berri batean murgiltzeko aukera. Haurtzarora atzean uztearekin batera galdutako harridurarako gaitasuna berreskuratzearen sentsazio freskoa. Liburu berria izan edo gure aurretik hamaika eskuk laztandua, sentsazio zirraragarri berdina.

Bizitzan lagun fidelak izan ohi dira liburuak, momentu zailtan lagundu gaituztenak, babesa eskaini eta amets egitera gonbidatzen gaituztenak. Hala ere, batzuetan, jarrera jeloskorra azaltzen diegula ematen du. Behin irakurrita etxeko apalategietan jartzen ditugu, tarteka

lagun edo senideren bati utziko diogu, baina orokorrean, gazte jubilatzera kondentzen ditugu. Irakurle gutxi batzuen eskuen laztanak besterik ez dizkiegu eskaintzen, sarri erabilera bakarreko artikulu bihurtuz.

Dagoeneko argi dugu gauzen bizitza luzatzea eta erabilera bakarreko gauzak ekiditea gure ingurua, eta beraz, gure burua zaintzeko eta babesteko neurriak direla. Bada, liburuekin ere hori egiteko gonbitea luzatu nahi dizuet oraingoan. Badira urte batzuk liburutegia heldu zela gure eskualdera, hortaz, aukera paregabea dugu liburuak maileguan hartu, irakurri, gozatu, eta hauen bizitza luzatzeko.



Lurra

Liburutegia, kultura berdintasunean zabaltzeko tresna

Patxi Irurtzun, Ultzamako liburuzaina:

“Liburutegi publikoen onurak asko dira; irakurketa sustatzen dute, haur eta gazteen hezkuntzari eta kulturari laguntza ematen diete, aisialdirako aukera osasungarriak eskaintzen dituzte, kulturara hurbiltzeko aukerak ematen dizkigu guztioi, berdintasuna bermatuz.

Gainera, liburutegiak aldaketa-prozesuan daude, liburu-biltegi soilak izateari utzi diote, eta kultura, aisia, prestakuntza eta abarren hedagailu bihurtu dira, tailerrak, antzerkia, biltzeko lekuak, Interneterako sarbidea, interes



▲ Patxi Irurtzun, Ultzamako liburuzaina

komonak dituzten pertsonak aurkitzeko aukera... eskainiz. Gure liburutegiaren kasuan, adibidez, oso argi ikusten da irakurketa-klubetan edo ostiral kulturaletan.

Gure liburutegiak ikasturtearekin eta eskolaz kanpoko jardurekin osolotutadagoen funtzionamendua du, eta hor nabaritzen da mugimendu gehien... Azken urte eta erdi honetan pandemiak asko baldintzatu du, baina, oro har, ohiko irakurleen artean liburuen mailegua mantendu egin da, eta ostiral kulturalak ere bai. Jende asko bildu da, garai “normalean” baino gehiago; nire ustez, atsedan edo leiho txiki batek bezala funtzionatu du”



Komikien apalategira bisita bat


Gaur liburutegian komikien apalategira hurbilduko gara. Komikiak, edo eleberri grafikoak, orain deitzen dieten bezala. Egia esan, eleberri grafikoa helduei zuzendutako komikiari deitzeko modu bat dela esan daiteke, eta izen horrekin komikiaren artea duintzea bilatzen du nolabait. Pobrean zinema ere deitua izan da, adibidez. Nolanahi ere, badira tebeoei kategoria handiagoa ematen edo errespetagarriagoak egiten lagundu duten lan batzuk.

Gure hautaketa:

MAUS. Art Spielgeman

Eleberri grafiko autobiografikoa da, Art Spiegelman suediar/ estatubatuarrek egindakoa. Bertan, bi istorio paralelo kontatzen ditu: Alde batetik, gaur egungo harremana Art komikigilea eta Vladek haren aitaren artekoa, eta bestetik (ildo nagusia) aitak kontzentrazio-esparru batean bizi izandakoa, nondik eta bizirik atera baitzen. Liburuaren orijinaltasuna pertsonaien irudikatzean datza,

multzoka sailkatzen baititu arraza edo nazioa kontuan hartuta, eta horren arabera animalia talde batean edo bestean marrazten ditu: Juduak saguak dira ("maus" alemanieraz), alemaniarrek katuak, poloniarrek txerriak, frantziarrak igelak, britainiarrek arrainak, estatubatuarrek txakurrak eta abar. Beste premio batzuen artean, 1992an Pulitzer sari berezia lortu zuen. (Gaztelaniaz)



PILULA URDINAK. Frederik Peeters

Umorezko ukitu freskoak eta bere buruarekiko batere atseginik agertzen ez duen zintzotasuna baliatzen ditu Frederik Peetersek kontakizun honetan; itxura xume batezetaburuargitasunerabatekoaz, gai unibertsalak jorratzen ditu: maitasuna, heriotza... Komikia sortu eta hamahiru urtera, zortzi orrialde berri gehitu ditu Peetersek, Pilula urdinak-eko protagonistak gaur egun non diren azaltzeko, eta bi orriko post scriptum bat ere badu edizio berritu honek, paperean inoiz argitaratu gabea. Obra sortu zuelarik, Peetersek garatuta zuen jada trebetasun grafikoa eta kontatzeko gaitasun bikaina,

eta Catirekin bizi duen istorioaz hitz egiten du albumean, euren harremana baldintzatuko duen GIBaz eta gainditu beharko dituzten emozio kontraesankorrez: gupida, errukia, pena, erru sentimendua edo maitasun aratz eta aldagaitza? Freskotasuna eta baikortasuna nagusitzen zaizkio ilunari eta fatalismoari, eta gaixotasunaren egunerokoari hurbiltzeko aukera ematen du batere sentsazionalismo edo biktimismo aztarnarik gabe; harrigarria da, bestalde, 27 urteko egile gazteak –adin hori zuen Frederik Peetersek komikia egin zuenean– agertzen duen heldutasuna. (Euskaraz)





POLOLOAK. Patxi Gallego


Liburuko protagonista nagusia Xabinaitor da, super-heroi euskalduna. Gaur egun, hankatarteko "trastea" etengabe zutituta bizi da, baina garai batean ez zitzaion inolaz ere tentetzen. Beste arazo larri bat ere bazuen: euskal gaiak gorroto zituen. Aita jeltzalea zuen, eta Sabino izena

jarri zioten, baina berak Xabi nahiago zuen, izenez lotsatuta. Xabinaitorren helburua, poxpolinak salbatzea da, eta ahalegin horretan Kariñerekin topo egingo du. Xabinaitorren balentriak triologiaren lehenengo komikia da istorio desternatzaile hau. Adi egon, **helduentzako komikia da!** (Euskaraz)



PERSÉPOLIS. Marjane Satrapi

Sortu eta hamar urte baino gehiagora, Persepolis, merituengatik, eleberri grafikoaren klasiko bihurtu da. Marjane Satrapiren kontakizun autobiografikoak herrialde baten historiaz hitz egiten digu, Iran, gaur egun oraindik mundu arabiarrean erreferentzia izaten jarraitzen duena. Erregimen totalitarioen aurkako egungo matxinaden sorburu, Iranek era guztietako gerra eta altxamenduak izan ditu, eta ezinezkoa da egungo egoera ulertzea bere historia ezagutu gabe. Umorez, zentzu kritikoz eta ironiaz, Marjane Satrapik istorio hau kontatzen digu, berea dena, 1979ko iraultza islamikoaren garaipenetik, Iraken aurkako gerretatik eta aiatolen erregimenetik hasi eta 1980ko eta 1990eko hamarkadetan euren herrialdea askatasunaren bila uztea erabaki zuten irandarren diasporaraino. (Gaztelaniaz)



PYONGYANG. Guy Delisle

Ipar Koreari buruz egin den dokumentalik onena komiki bat da. Guy Delisle quebecarrak behaketaren eta ironiaren zentzu zorrotzarekin kontatzen du Koreako hiriburuan egindako egonaldia. Piongiang Orwellen amesgaiztoa errealtate bihurtu den herrialde baten ikuspegi errealista da, baina hori guztia kazetariaren zorrotasunetik, mendebaldeko baten harriduratik eta bidaiari ondu baten ironiatik landu da. Guy Delislek, erregimen totalitario honen inkoherentzien behatzaile flematikoak, errealtate ofizialak logikari aurre egiten dion unibertso arraro batera garamatza, eta, ia beti umorez, ideologia paranoiko batek gizatasunik gabeko hiri batean egindako egonaldia markatu zuten pasadizo ugariak marrazten ditu. (Gaztelaniaz)



ZARRAKAMALDA. Iñaki Martiarena, Mattin

Lokatzak, liburu honetako protagonistak, euro txanponak sartu ditu etxeko loreontzietan eta egunero urreztatzen ditu; 50 euroko landareak jaioko direla dio. Inguruak erasotzen duen pertsonaia baten kontakizuna da hau. Hiriak erasotzen du, lurra erasotzen du, ingurukoekin harremanak izan nahi ditu, baina ez du lortzen; bere lubaki partikularrean bizi da. Bizirauten du. Ingurunearekin eta ingurukoekin harreman ezberdin bat garatu nahi duen pertsona baten bidaiaren kronika da komiki hau; itxaropentsua batzuetan, ilun-iluna besteetan, umoretsua sarri eta etsigarria maiz. Izerdia, amorrua eta garagardoa darie orrialde hauei. (Euskaraz)



Patxi Irurzun
Ultzamako liburuzaina



2021eko abuztua

2021eko abuztuan (agorrila) gure alderdian izan diren jaiotzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ULTZAMA Arraitz

Manex Baraibar Inda, Joseba eta Sarayren semea, abuztuaren 25ean sortua **Sabatenean**.



▲ Manex bere bi anaiekin, Xuban eta Xabierrekin

Iraizotz

Serena de Manresa Mason, Roger eta Ashleigh-en alaba, abuztuaren 17an sortua.

“ Zorionak gurasoei ”

Urritzola

Ekain Eritze Rekalde, Daniel eta Haizearen semea, ekainaren 28an sortua **Larrainpean** (Hau ez genuen bere garaian atera)



▲ Ekain ez da ohartu atzeko paisaia ederraz

Ezkontzak:

Ustez behintzat, ezkontzarik ez dugu izan.

Heriotzak:

ANUE Olague

Luisa Artozki Marillac, Etxezarreko etxeoandrea; abuztuaren 20an hil zen, 91 urtetan.



▲ Luisa Artozki

BASABURUA Gartzaron

Juan Arangoa Ilarregi, Joantzineko nagusia; abuztuaren 16an zendu zen 86 urtetan.



▲ Juanito Arangoa

“ Beti egonen zarete gure bihotzean ”

Orokietia-Ola

Maritxu Noain Insausti, Olako Etxeberriko etxeoandrea, abuztuaren 23an, 85 urtetan.



▲ Maritxu Noain Insausti

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karricolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



20

arrosa

urte

uhinok
uzt(h)ortuz



Txara
97.4

Arria
90.7

90.5

90.1

90.2

naiz:irratia

Kintzora

90.3

90.4

90.6

97.3

90.8

Bure:irratia

90.9

EUP!

90.0

90.7

91.96.0-FM

90.4

90.5

90.6

90.7

90.8

Atun
90.9

90.0

alaridea fm

www.arrosasareo.eus